



2023UDOS0005

Andoingo Udala

**Akta: Osoko Udalbatza**

OHIKO BILKURA: 2023/05/02

**Acta: Pleno Municipal**

SESIÓN ORDINARIA: 02/05/2023

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz**Zinegotziak: / Concejales/as:**

<b>EH-Bildu</b>	Andoni Alvarez Lete Estibalitz Mujika Tolaretxipi Jon Zulueta Berastegi Garazi Usandizaga Zubiria Julian López Aracama M <sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun Xabier Fondón Pajares
<b>PSE-EE</b>	José Luis Verdasco Gutierrez Ascensión Parrón Peguero Petra Romero Pozo
<b>EAJ-PNV</b>	Maria Jose Izagirre Iturzaeta M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández Imanol Goenaga Egibar
<b>Elkarrekin Podemos</b>	M <sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	<b>00000005</b>
Eguna	<b>2023/05/02</b>
Hasiera	<b>19:00</b>
Amaiera	<b>19:55</b>

**Idazkaria:**

María Uriarte Zurikaray

**Kontuhartzailea**

Myriam Lizaso

Arruabarrena

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:**

Oscar Mendo González (PSE-EE), quien delega su voto en D. José Luis Verdasco Gutiérrez.  
Alexander Huitzi Alfonso (EAJ/PNV).

**Gai Zerrenda:**

- 2023/03/30ean egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

**Xedapenak**

- 2021eko Kontu Orokorraren onarpena.
- 2022ko likidazioaren berri ematea.
- 2023/03 zenbakiko kreditu aldaketa onartzea.
- Haur Eskolako tasak onartzeko proposamena.
- Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen aldaketa behin betiko izaeraz onartzea.
- Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzeko proposamena behin-behineko onartzea.
- Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain erakundeak eskatutako

**Orden del Día:**

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 30/03/2023.

**Parte Dispositiva**

- Aprobación de la Cuenta General 2021.
- Dar cuenta de la Liquidación 2022.
- Aprobación del expediente modificativo de crédito nº 03/2023.
- Propuesta aprobación de las tasas de la Escuela Infantil.
- Aprobación definitiva de la modificación de los estatutos de la Mancomunidad de Tolosaldea.
- Aprobación inicial de la propuesta de modificación de la bases reguladoras de las ayudas económicas para actuaciones de mejora energética en edificios y viviendas en Andoain.
- Declarar la procedencia de la concesión solicitada por la asociación Andoingo Tokiko



- emakidaren egokitasuna aldarrikatzea eta aurkeztutako eskaera tramitera onartzea.
9. 2030 Agendari buruzko Adierazpen instituzionala.
10. Udalaren lanpostuen zerrenda aldatzea.

- Energia Komunitatea-TEK Andoain y admitir a trámite la solicitud presentada.
- 9.- Declaración institucional sobre la Agenda 2030.
- 10.-Modificación de la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento.

**Kontrola**

11. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 554/2023 zenbakidunetik 806/2023 zenbakidunera.
12. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

**Parte de Control**

- 11.-Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 554/2023 y la nº 806/2023.
- 12.-Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik.

“Gaur, 2023ko maiatzaren 2an ohiko udal batzarrari hasiera emango genioke.

“Decía que muy buenas tardes a todas y a todos y bienvenidos al Pleno del 2 de mayo de 2023.

“Hasi baino lehen komentatzea Óscar Mendo zinegotzi jauna gaixorik dagoela eta hori dela-eta, bere bozka, José Luis Verdasco zinegotziarengan eskuordetzen duela.

“Decíamos que el concejal D. Óscar Mendo sigue de baja y que su voto recae en el concejal D. José Luis Verdasco.

“Hau esanda, hasiera emango genioke gaurko udal batzarrari.”

**1. 2023/03/30ean egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2023/03/30 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

**2. 2021eko Kontu Orokorren onarpena.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 62. artikulua dio udal erakundeek, kontabilitate ekitaldia amaitutakoan, ekitaldi horretako aurrekontu-eragiketen, aurrekontuz kanpoko eragiketen, ondare-eragiketen eta diruzaintzako eragiketen kontu orokor bat egin beharko dutela.

86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duenak jartzen du urteko kontuak barne dute balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera- orria eta memoria.

2023.02.14ko akta ikusita eta batez ere laugarren puntua.

Kontuan hartuta espediente horretan dagoen dokumentazioa, hauen barne, Kontu hartzailearen txostenak eta jendaurrean egon direla (GAO 42 zenbakikoa, 2023.03.02koa).

Ogasun Batzordeak Kontuetarako Berezia den Batzordea bezala, 2023.04.26an aldeko txostena eman ondoren.

Guztia aurrekontuen inguruan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, kasu honetan, 2023/21 Foru Arauak, 62 artikulua dio udal erakundeek ekitaldi horretarako aurrekontuetan eragiketen, aurrekontuez kanpoko eragiketen, ondare eragiketen eta diruzaintzako eragiketen kontu orokor bat egin beharko dutela.



“Decíamos que el artículo 62 de la Norma Foral 21/2003 establece que las entidades municipales formarán una cuenta general representativa de todas las operaciones presupuestarias, extrapresupuestarias, patrimoniales de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio. En la Comisión de Hacienda del 14 de febrero del 2023 se llevó ya este punto y se ha expuesto al público a partir del 2 de marzo del 2023, que fue la fecha en la que se publicó en el BOG, no existiendo reclamación alguna.

“Así pues hoy procederemos a la aprobación de la cuenta general del ejercicio 2021.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea 2021eko ekitaldiko urteko Kontu Orokorra.

### 3. 2022ko likidazioaren berri ematea.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, kasu hontan komentatzea zaintzako gerakina, saldo kobragaitzak eta gehiegizko finantzaketa lotua kendu ondoren, geldituko litzaigukeela gastu oreka orokorretarako diruzaintzako gerakina, 11.210.946 eurokoa.

“Bestetik, aurrekontuko emaitza izango litzateke, 936.303,76 eurokoa.

“El resultado del ejercicio 2022 daría un valor positivo por importe de 936.303,76 euros.

“Bukatzeke esan komentatu dugun gerakinari, kontuan izan behar dugu 2022tik 2023an txertatu diren kredituak izango direla, izan direla, barkatu, 4.113.811 euroko kopuruan.

“Decíamos que al remanente que ha quedado habría que restar los créditos incorporados que vienen de 2022, que son por importe de 4.113.811 euros.”

**Lehena.-** Udal honen 2022ko aurrekontuaren likidazioaren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:		14.674.413,73
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		2.257.628,70
Aurrekontuko zordunak :	2.206.008,80	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	51.619,90	
Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n:		3.235.850,09
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.928.102,70	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.307.747,39	
Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		13.696.192,34
5.- Saldo kobragaitzak:		1.070.636,12
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		1.414.609,31
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		11.210.946,91

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.073.456,09
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-137.152,33



## KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	5.837.240,93
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	3.658.495,91
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	9.495.736,84

**Bigarrena.-** Kredituak txertatzea guztira 4.113.811,52.-€-ko diru-kopuruan eta kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea Diruzaintzako Gerakinean zuzkituz aplikazioak handituz onartu ahal izateko, konprometituta dauden gastuak 2023ko aurrekontuan aplikatzeko.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Alkate andreak, gaia eztabaidara jarri da eta parte.hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### 4. 2023/03 zenbakiko kreditu aldaketa onartzea.

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2023-KALD-000001-00) eta kreditu transferentzien (Sarekon 2023-KALD-000003) bidezko kreditu aldaketaren 2023/03 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”.

Besteak beste, kontuan izanda:

- Udalbatzak erabakitako akordioak (2022ko atzerapenak)
- 2022ko aurrekontuan onartutako hainbat gastu konpromisu eta ezin izan direnak txertatu (2023/02 espedientea)
- Finantzaketa lotuta dituen gastuak (enpleguko programak, herentzia)
- Hainbat Batzorde Informatzaileak emandako aldeko proposamenak (Kultura, Enplegua eta Hirigintza)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2023/03 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien eta kreditu transferentzien modalitatekoa.

Kontu hartzaileak egindako txostenak kontuan izanik.

Era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/04/26ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Laugarren puntu honetan, 2023/3 zenbakiko kreditu aldaketa onartzea.

“Bai kasu honetan, aipatzea bi kreditu mota daudela. Batetik, kreditu gehigarriak, batez ere, direla udalbatzak erabakitako akordioak, 2022ko atzerapenak, bestetik, 2022ko aurrekontuan onartutako hainbat gastu konpromisoa eta ezin izan direnak txertatu, hau da, 2023/2 espedientea. Bestetik, finantzaketa lotua dituen gastuak, enpleguko programak eta herentzia. Eta bukatzeko, hirigintzako kreditu aldaketa, hor osotasunean izango litzateke, 1.699.813,52 euro.

“Decíamos que por un lado, el modificativo de crédito tiene dos partes. Por un lado serían los créditos adicionales, que estarían compuestos por el acuerdo que se produjo en el pleno referente a los gastos de personal, por otro lado, los compromisos que vienen desde 2022, según el expediente de 2/2023.

“Por otro lado, los gastos de financiación afectada tanto de los programas de empleo como de la herencia, y por último, la modificativa que viene de la partida de urbanismo en relación a la calidad del aire. En total sumarían 1.699.813,52 euros.

“Batetik, enpleguko kreditu aldaketa 25.000 euro eta kulturari 4.000 eurokoa. Por otro lado, serían las transferencias de crédito, que esos son a ponerlos en ingresos y gastos.

“Por un lado estarían las apartados de Empleo por importe de 25.000 euros, y en Cultura de



4.000 euros. Osotasunean, en total, 29.000 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2023/03 espedientea, kreditu gehigarrien (2023-KALD-000001-00) eta kreditu transferentziaren (2023-KALD-000003-00) modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERSONAL GASTUAK	538.589,09
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	962.521,20
6	INBERTSIO ERREALAK	198.703,23
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>1.699.813,52</b>

#### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.699.813,52
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.699.813,52</b>

#### KREDITU TRANSFERENTZIAK

##### Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	25.000,00	25.000,00	0,00
6	INBERTSIO ERREALAK	27.000,00	4.000,00	3.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>52.000,00</b>	<b>29.000,00</b>	<b>23.000,00</b>

##### Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	0,00	25.000,00	25.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	4.000,00	4.000,00	8.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>4.000,00</b>	<b>29.000,00</b>	<b>33.000,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

#### 5. Haur Eskolako tasak onartzeko proposamena.

Ikusita, Andoingo familien beharrei erantzun ahal izateko, Partzuergoko kide diren gainerako Haurreskola publikoek egingo duten ildo beretik, indarrean zeuden aurreko tasak bertan behera utzi eta 2023/2024 ikasturtetik aurrera Galardi Udal Haurreskolako jantoki-zerbitzuaren tasa berri bat aplikatzeko



beharra ikusten da, haur bakoitzak jasoko duen sukalde-jantokiko zerbitzuari dagokiona.

Ikusita, Galardi haurreskolako zuzendariak tasen inguruan proposatzen duen aldaketa.

Ikusita, Hezkuntza eta Kultura teknikariaren 2023/04/03ko txostena.

Ikusita Kontu hartzaileak 2023/04/11n egindako txostena (erref: 2023/07)

Hezkuntza eta Kultura Batzorde Irizpenemaileak 2023/04/26ko bileran emandako aldeko irizpena

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/04/26ko bileran emandako aldeko irizpena.

Ruiz andreak, hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dakizuen bezala, datorren hiletik aurrera ikasturte berrian, Patzuergokoak diren Euskadi osoko haurreskolen matrikula doakoa izango da, nahiz eta haurreskola gehienak multzo honetan sartuta egon, badira udal haurreskola gutxi batzuk ere, tartean Andoingoa.

“Gaur egun matrikula hori udal aurrekontuetatik, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzetatik eta ikasleen matrikulaziotik finantzatzen da.

“Trailetik aurrera, egoera berri baten aurrean aurkitzen gara orduan, honenbestez, bermatu nahi izan dugu eskualdeko eta inguruko herrieekin alderatuta eskaintza lehiakorra izatea. Beste era batera esanda, Andoingo haurrak eta familiak kaltetuak edo penalizatuak ez izatea.

“Horregatik, Kultura Batzordean aho batez onartu da matrikularen doakotasuna. Orain arteko matrikula tasa bertan behera utziko da eta tasa berri bat sortuko da soilik jantoki edo jangela kontzeptuan. Proposamena aho batez onartu da Kulturaren eta baita Ogasun Batzordean.

“Konsziente gara ez dela behin betiko konponbide bat, trantsizio erabaki bat baizik. Ulertzen dugu haurreskolaren etorkizunari buruzko gogoeta zabala aurrera eraman behar dela, beharra dagoela. Baina bozketara jartzen dugun proposamen honek 2023-2024 eskaintza egokia eskaintzeko aukera ematen digu.

“Eskertu alderdi guztiei erakutsi duzuen akordiorako jarrera eta prestutasuna, eskerrak, teknikariei ere, hezkuntza departamentuaren baieztapena iritsi zenetik gaur arte lana arin eta etenik gabe egin duzuelako.

“Baina garrantzitsuenak, datozen egunetan Andoingo gurasoek beraien seme-alabak doan matrikulatzeko aukera izango dute jantoki tasa berriarekin. Milesker guztioi.”

Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, kaixo, arratsalde on denoi.

“Kulturako batzordeburuak aipatu dugun bezala, aho batez onartutako akordio bat izan da eta guk argi ikusten dugu trantsizioko akordio bat dela eta bai, bai Ogasun Batzordean eta Kultura Batzordean esan genuen bezala, bi eskaera egingo genituzke. Batetik, hobarietan soilik kontuan hartu da seme-alaba kopurua eta, bai Kultura Batzordean eta Ogasun Batzordean eskatu genuen bezala, gure ustez, familiek duten diru sarrerak ere hartu behar dira kontuan. Eta gero, zuk ondo esan duzun bezala, epe ertain-luzera ere hausnarketa sakonago bat egin behar dugu. Udal bezala, hamahiru herri bakarrik daude Partzuergotik kanpo, EHEn, eta guk uste dugu hor norabide horretan ere hausnarketa sakon bat egin behar dugula udaletxe eta herri bezala.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro grupo compartimos la misma reflexión. También pensamos que puedes tener cuatro hijos y ser millonario.

“Como se han dado casos en Madrid, por ejemplo, con el bono social. Entonces, siempre pensamos que lo más justo es hacer todo según rentas y en este caso lo mismo. Y en el tema de la concertación de las haurreskolas, pues también estamos de acuerdo con que pasen a formar parte del Patzuergo, porque pensamos que es lo mejor que todos estén en red y que es la forma, y no nos gusta deslocalizar, pero sí pensamos que como institución y el Gobierno Vasco puede tener mejores medios y mejores herramientas, y entonces pues sí que pensamos que es mejor, y luego pues para el ayuntamiento también, pues nos beneficiaría en cuanto a cubrir el personal, a las bolsas y demás. Ya estamos de acuerdo.”

Parte-hartze gehiagotik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:





1.- Honakoa iritzi du: 2023/2024 ikasturterako, Galardi Udal Haurreskolako proposaturiko tasen ordenantza, ondoren zehazten den modura onartzea:

<b>7.10.- Galardi Haurreskolako</b> 7.10.- Escuela Infantil Galardi
Zaintza eta egonaldi zerbitzua: <b>salbuetsita.</b> / Servicio de asistencia y estancia: <b>exento.</b>
Jantoki-zerbitzuaren kuota bakarra <b>120,00.-€/hileko</b> izango da. / La cuota única del servicio de comedor será de <b>120,00.- €/ mes.</b>
Bularreko hurrek ez dute zerbitzu hori ordainduko beren elikaduran dieta sartu arte, hau da, 6 hilabeteekin. / Los lactantes no pagarán este servicio hasta que incluyan la dieta en su alimentación, es decir, a los 6 meses.

**Tasa** hori hileroko kobratuko da, hilabetea amaitu ondoren. Baina, haurraren onarpenaren ebazpenaren notifikazioa jaso bezain azkar, hilabete baten kuotaren erdia kobratuko da eta kopuru hori haurra hasiko ez balitz ere, ez da itzuliko.

**Bajak:** aurreko urtean haurreskolan egonik bertan jarraitu nahi ez duten haurren kasuan, baja idatziz igorri beharko dute izena emateko ezarritako epe berean (matrikulazio kanpainan).

Abian den ikasturterako, **apirilaren 20tik aurrera ez da inolako bajarik onartuko**, eskaera hori behar bezala zuriturik ez baldin badago behintzat (egoitza aldaketa, ziurtaturiko gaixotzea, edo antzeko kasuak...).

Zuritu gabeko kasuetan, hilabete horiei dagozkien tasak kobratzen jarraituko dira ikasturtea amaitu arte.

Ondo zuritutako kasuetan, apirilaren 30etik aurrera baja onartuko da, eta ikasturte amaiera arteko tasak ez dira kobratuko.

Onartutako bajak, eskaera aurkeztutako egunaren hurrengo hilabetean jarriko dira indarrean.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten familiek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

**Hobariak**

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz, eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Hobariak ez dira metagarriak.

Ordainsariak murriztezinak izango dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

1. **%50eko** murriztapena haurraren egokitzapen epealdian (lehenengo hilabetean)
2. Justifikaturiko arrazoiarengatik asistentzia faltan kasuan izan ezik, beti ere hau astebetekoa baino luzeagoa denean; kasu horretan bazkariari dagokion gastua itzuliko da, zeina 2023/2024 ikasturteetik aurrera **3,00.-€/egunean** finkatua izan den.

Justifikatutako asistentzia falta (aste betekoa gutxienez), hori gertatu aurreko asteko azken bi egunetan jakinaraziko da idatziz. Gaitza edo istripuagatik denean, medikuen ziurtagiria ekarri beharko dute astebete barruan.

3. Langilegoaren grebarengatik jangela zerbitzua ezingo balitz eman **egun bakoitzeko 3,00€ko** deskontua egingo zaio.

**Ordainsari hauen iraunaldia:**

Tasa hauek **2023/2024** ikasturteetik aurrera egongo dira indarrean.



2.- Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, probintzian hedapen handiena duen egunkarian argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da

## 6. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen aldaketa behin betiko izaeraz onartzea.

1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.

2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua CGP (Consultores de Gestión Pública) enpresari adjudikatu zion.

3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.

4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.

5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespena eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.

6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zenbakia) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoingo Udaleko talde sozialistarena.

7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zedin.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.

9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa-gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, euren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

### Zuzenbidezko oinarriak

Lehena: Legeria aplikagarria.

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 22, 44 eta 47 artikulua.

- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikulua.

- Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremanei buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.

- Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gairikoko erakundeak arautzen dituena: 1-17 artikulua; 29 eta 30 artikulua, besteak beste.

- Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.

- 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.

Bigarrena: Estatutuak aldatzeko arrazoiak.

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gairikoko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.

2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideak estatutuaren islatzeko.

3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak islada izan dezan.





Hirugarrena: Estatutuak aldatzeko prozedura.

Bi araudi uztartu behar dira: Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 60. artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru araua.

Bi araudiak uztartuta Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketa prozedura ondorengo da:

- a) Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.
  - b) Aldaketa proiektua egitea Batzorde iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.
  - c) Batzarrak onartzea, gehiengo soilez, eta gainera, gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen erdia ordezkatu beharko du.
  - d) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udaletxeetako iragarki tauletan erakutsiz.
  - e) Batzarrak erabakiko ditu alegazio, eragozpen eta oharpen horiek.
  - f) Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.
  - g) Txosten hori egin bada edo horretarako arazuko epea iragan bada, edukia ikusi ondoren sustatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, dei egingo dio berriro Batzarrari estatutueta antzeman diren irregulartasunak zuzentzeko.
  - h) Mankomunitateko udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.
  - i) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- Espedientea aztertu ondoren egiaztatu da Tolosaldeko mankomunitateak bete dituela estatutuen aldaketarako prozeduraren betekizunak.

Laugarrena: Eskumena.

Estatutuen aldaketa behin betiko onartzeko eskumena Osoko Udalbatzak du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikulua b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60 artikulua xedatutakoaren arabera.

Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikulua arabera.

Kontuan izanik Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuen aldaketa proposamenaren aldeko txostena eman duela 2023ko martxoaren 20an eta berak proposatutako aldaketa-gomendioak behin betiko izaeraz onartzea proposatzen diren estatutueta txertatu direla.

Kontuan izanik udaleko behin-behineko idazkariak 2023ko apirilaren 13an egin duela alde aurreko txostena, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.3 d)1 artikuluan eskatzen duena.

Ikusirik Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2023ko apirilaren 24ako bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza, eta honakoa esan du:

“Arratsalde on. Batzordean aipatu zen bezala, aldaketa dator, batik bat, eta nagusiki, ba lege berriari moldatu behar zirelako estatutu hauek, barne funtzionamenduko hainbat gai ere badaude, baina nagusiki lege berria aplikatu behar delako.

“En este sentido el Grupo Municipal Socialista, y voy a hablar en su nombre porque soy la persona que suele ir a la mancomunidad y también lo hemos hecho allí.

“En principio nosotros estamos de acuerdo, lógicamente, con los cambios, que son motivados por los diferentes cambios de leyes, pero hay sobre todo algunos artículos que entran ya más en la incorporación de nuevos servicios de cara a la mancomunidad, y ahí ya lo explicamos también en la misma, en la propia mancomunidad, que entendemos que, cuando se produzcan esas necesidades por parte de los distintos ayuntamientos y se vea como tendrían que afrontarlos, pues entendemos que es el momento de hacer los cambios y las incorporaciones, y no por ahora, y en consecuencia, pues votaremos en contra de algunos de los artículos.

“En la mancomunidad, si se acordó que se votaría artículo por artículo y bueno pues ahora se



procederá así en ese sentido.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak aldatu beharreko artikulua bakoitzari buruzko bozketan martxan jartzen du eta honako emaitzak jasotzen dira:

- 5. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 9. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 11. artikuluaaren aldaketa gehiengoz onartzen da, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE-ko zinegotzien kontrato botoekin.
- 16. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 18. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 19. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 23. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 25. artikuluaaren aldaketa gehiengoz onartzen da, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE-ko zinegotzien kontrato botoekin.
- 46. artikuluaaren aldaketa gehiengoz onartzen da, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE-ko zinegotzien kontrato botoekin.
- 55. artikuluaaren aldaketa gehiengoz onartzen da, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE-ko zinegotzien kontrato botoekin.
- 56. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 60. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 61. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 62. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 63. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 64. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- 65. artikuluaaren aldaketa aho batez onartzen da.
- Bigarren xedapen gehigarriaren aldaketa aho batez onartzen da.
- Zazpigarren xedapen gehigarriaren aldaketa aho batez onartzen da.

Horrenbestez, Osoko Udalbatzarrak, legeak eskaturiko gehiengo osoz, honako erabakiak hartu ditu:

**Lehenengoa:** Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa behin betiko onartzea, artikuluz artikulua, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikulua aldatzea onartzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA
A	
5. artikulua	5. artikuluari erantsen zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gairako erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomancomunitatea.eus delarik.
11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osakeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.
18. artikulua	Artikuluaaren hasierari erantsen zaio: Batzarra udalderri mankomunitate bakoitzeko ordezkaritza banak osatzen du
19. artikulua	19. artikuluari erantsen zaio: Udalderri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak



	eratzen diren bakoitzean.
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketen onspena
25. artikulua	5. azpiatala eranstean zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua
55. artikulua	55. artikuluari eranstean zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.
56. artikulua	56. artikulua 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eranstean zaizkie 2.- Udalen ekarpenak udalari bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatu dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariak ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean. 3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du. 4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du. 5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrak diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariek ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoaren kontaktetan ere ez dira kontuan hartuko. Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.
60. artikulua	60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da: - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkarikopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezairoke proiektua egiteari. - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan.



	Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kideatariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu osoa, bere aldatetekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikulua araberan banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikulua araberan, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaiendako Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.

Bigarrena: Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

**7. Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileak aldatzeko proposamena behin-behineko onartzea.**

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2022ko ekainaren 30ean egin zuen batzarrean, hasierako onespina eman zion Andoingo udalerriko eraikin eta etxebizitzetan energia hobetzeko jarduketetarako dirulaguntzen oinarri arautzaileari. Aipatu ordenantza argipideketa publikora eta interesatuen entzutera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez zirenez, behin betikoz onartutzat geratu zen aipaturiko plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera eman zen toki errejimenaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez. Oinarrien behin betiko testua 2022ko irailaren 20ko 178 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Kontuan izanik aurreko deialdiaren esperientzia, goian aipaturiko oinarrietan hainbat aldaketa eta hobekuntza sartzea komeni dela uste da.

Ikusirik udaleko behin-behineko idazkariak 2023ko apirilaren 18an egindako aldeko txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2023ko apirilaren 25eko irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko zinegotzi Delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. Traemos para su aprobación inicial las bases para la regulación de las ayudas económicas para la mejora de eficiencia energética en edificios y viviendas del municipio.

“En el anterior año, se pusieron en marcha, y viendo la experiencia del año anterior, se ha visto conveniente introducir una serie de modificaciones, por detallar algunas de ellas. En esta nuevas bases se recoge la concesión de ayudas también para las asociaciones de interés social. Se incorporan también



las ayudas para edificios de tipología de villa unifamiliar, aislada o adosada, y se elimina la referencia que hacía las bases anteriormente a los edificios en el que se ejecuten las actuaciones subvencionables deberán estar construido, construidas con anterioridad al 1 de enero de 2000. Esta parte se suprime de las bases.

“Además de estas, se incorporan a otras cuestiones de tipo administrativo, para agilizar la tramitación de las ayudas, se someterán las bases a exposición pública durante un plazo de treinta días, y en el caso de que durante ese plazo no nos están alegaciones, el acuerdo quedará aprobado definitivamente.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

**Lehenengoa:** Andoingo eraikin eta etxebizitzetan hobekuntza energetikorako jarduketan oinarri arautzaileak aldatzeko proposamena hasierako izaeraz onartzea, honela:

1.- Gizarte-intereseko elkartei laguntzak ematea aurreikusten da, eta horrek sarrera eta indarreko oinarrien I. eranskineko 1., 3. artikulua (3.3), 5.2, 9.3 eta a) eta b) idatz-zatiak aldatzea dakar.

2.- Kendu egiten da indarrean dauden oinarrien 6. artikulua. Horren arabera, oinarrien 5.1 atalean aurreikusitako laguntzetatik kanpo geratzen dira familia bakarreko edo bi familiako hiribildu isolatuko edo atxikiko eraikinak.

Ondorioz, oinarrietako gainerako artikuluen zenbakiak aldatu dira.

3.- Lehenengo 7. artikuluan, orain 6. artikulua, kendu egin da diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatuko diren eraikina 2000ko urtarrilaren 1a baino lehen eraikita egon behar dela dioen aipamena.

4.- Aldatu egiten da 8.1 artikulua, orain 7.1 artikulua, bertan antzemandako akats bat zuzentzeko: “zuzeneko emakida” dioen lekuan, emakida esan behar du “norgehiagoka bidez.”

5 Lehenengo 9.2 artikulua, orain 8.2 artikulua, aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

“8.2.- *Eskabideak deialdian aurreikusitako epean aurkeztu behar dira, eta honako agiri hauek aurkeztu behar dira:*

a).- *Aktaren edo Jabeen Erkidegoko Batzordearen akten fotokopiak; bertan, Erkidegoaren presidentea izendatu dela edo Administrazioaren aurrean haren ordezkaria izendatu dela jasoko da, bai eta diruz lagundutako obrak onartzeko erabakia ere. (Jabekideen komunitateentzako)*

b).- *Elkartearen Batzarraren aktaren edo akten fotokopiak, non jasoko baita elkartearen lehendakaria izendatu dela edo Administrazioaren aurrean elkartearen ordezkaria izendatu dela, bai eta dirulaguntzaren xede diren obrak onartzeko erabakiaren fotokopiak ere. (Gizarte-intereseko elkarteentzako).*

c).- *Erantzukizunpeko berariazko adierazpena:*

- *Beste administrazio publiko edo erakunde baten diru-laguntzarik eskatu edo jaso ez izana.*

- *Beste dirulaguntzaren bat eskatu dena. Beste dirulaguntzarik eskatu bada, eskaera egiaztatzen duen dokumentazioa eta, ebatsi bada, ebaspena bera.*

- *Andoingo udalak dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza 15. artikuluan ezarritako dirulaguntza publikoaren onuradun izateko debekurik ez duela adieraztea.*

- *I. eranskinean diruz lagun daitezkeen jarduerak bakoitzarako ezarritako baldintzak egiaztatzea.*

- *Etxebizitzaren jabea edo titularra izatea.*

- *Laguntza gehigarria jasotzeko baldintza egiaztatzen duen dokumentazioa edukitzea (erretiratua, pentsioduna, desgaitua).*

- *Dirulaguntza eskatu aurretik obra-lizentzia edo -eskaera izatea.*

- *Baimena ematen diot Andoingo udalari informazioa eskuratzeko erroldatuta nagoen herrian, belburu honetarako beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko.*

- *Nire erantzukizunpean adierazten dut, eskabidean azaldutako datuak egiazkoak direla.*

d).- *Esku-bartze tekniko kolegiatua eskatzen duten obren kasuan, dagokion elkargo profesionalak behar bezala bisatutako obra-amaierako ziurtagiria aurkeztu behar da, edo, hala badagokio, dagokion faktura.*

e).- *Instalatzilearen ziurtagiria, galdaren kasuan.*

f).- *Obraren titularraren banku-kontuaren zenbakia (20 digitu), eman daitezkeen diru-laguntza ordain dadin.*





g).- Obren edo instalazioen fakturak.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan eta 38/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Andoingo Udalak zuzenean kontsultatuko du, interesdunak borren aurka egiten ez badu behintzat, Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, eta NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez, laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen diren zehazteko informazioa, eta bereziki: zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatea (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzak), etxebizitzaren jabetzari buruzko kopia soila (Notariotzaren Kontseilu Nagusia); pentsioak, laguntza ekonomikoak eta desgaitasunari buruzko datuak (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta familia ugariaren titulua (Eusko Jaurlaritzak).

Datuak babesteari buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluan arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzaren aurka egin abal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu abal izango du.

Nolanahi ere, aurkeztutako dokumentazioaz gain, Andoingo Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu abal izango die eskatzaileei, aurkeztutako jarduera edo programa baloratzekeo.”

6.- Aldatu egiten da 10.3 artikulua zaharra, orain 9.3 artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

a) a) idatz-zatiari idazketa berria eman zaio, edukia aldatu gabe.

b) b) atalean, honako aldaketa hauek jaso dira:

- Gizarte-intereseko elkarteei laguntzak ematea aurreikusten da.

- Dauden galdara indibidualen ordezkari errendimendu handiko gas naturaleko galdarak jarritz gero, 100 euroko laguntza gehigarria ematea aurreikusten da erretiratua, pentsioduna, mendekoa, familia ugaria, zailtasun sozialeko emakumea edo % 33tik gorako desgaitasun-maila egiaztatzen duten jabeentzat.

Indarrean dagoen ordenantzan, erretiratua edo pentsioduna direla edo % 33tik gorako desgaitasun-maila dutela egiaztatzen duten jabeen baino ez zaie laguntza gehigarria emango.

- Beirazko itxiturak ordezkatzuz gero, laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da, egindako inbertsioaren diruz lagun daitekeen kostuaren % 30ekoa, eta etxebizitza bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 1.200 eurokoa izango da.

Indarrean dauden oinarrietan 400 €-ko gehieneko kostua aurreikusten da leihoko m<sup>2</sup> bakoitzeko, baina orain kendu egin da erreferentzia hori.

Aurreko kasuan bezala, 100 euroko laguntza gehigarria ematea aurreikusten da erretiratua, pentsioduna, mendeko pertsona, familia ugaria, gizarte-zailtasuneko emakumea edo % 33tik gorako desgaitasun-maila egiaztatzen duten jabeentzat (ez bakarrik erretiratua edo pentsioduna direla edo % 33tik gorako desgaitasun-maila dutela egiaztatzen duten jabeentzat).

7.- I Eranskina aldatzen da:

a) a) atalean, aldaketa hauek egin dira:

- Gizarte-intereseko elkarteei laguntzak ematea aurreikusten da.

Hirugarren paragrafoan Andoingo Energia Jasangarriaren Ekintza Planari buruzko aipamena gehitu da, eta, beraz, paragrafo hori honela idatzita geratu da: “Instalatu beharreko kristalezko kanpoko arrotzeria berriak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu, Andoingo Energia Jasangarriaren Ekintza Planarekin bat etorri.”

- Arrotzeria metalikoen kasuan, zubi termikoaren haustura (LPZ) 16mm-koa edo handiagoa izan beharko da. 16 mm-ko edo gehiagoko beira bikoitza eta isolamendu termiko indartua (ATR) duen barruko kristala, beiraren transmitantzia termikoaren balioa 0,95 W/m<sup>2</sup>K edo handiagoa duena.

Indarrean dauden oinarrietan, beiraren transmisio termikoaren balioa 1,0 W/m<sup>2</sup>K edo handiagoa izango dela aurreikusten da.

- PVCzko arrotzeriei, egurrei edo bestelakoei dagokienez, beira bikoitza jarri beharko da, isolamendu termiko indartua (ATR) duen barruko kristalezkoa, beiraren transmisio termikoko balioa 0,95 W/m<sup>2</sup>K duena eta 16 mm-ko edo gehiagoko aire-ganbera duena.

Indarrean dauden oinarrietan, beiraren transmisio termikoaren balioa 1,4 W/m<sup>2</sup>K edo handiagoa izango dela aurreikusten da.

b) b) atalean, gizarte-intereseko elkarteei laguntzak ematea aurreikusten da.

**Bigarrena:** Administrazio-espedita 30 eguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek espediten-





tea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren webgunean eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz.

**Hirugarrena:** Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onarpenerako erabaki hau behin betiko bihurtuko da.

#### **8. Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain erakundeak eskatutako emakidaren egokitasuna aldarrikatzea eta aurkeztutako eskaera tramitera onartzea.**

Osoko Udalbatzak, 2022ko maiatzaren 6an izandako bileran hartutako erabakiaren bitartez, honako erabaki hauek hartu zituen: “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkarte eratztea, Elkarteko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoaren eta Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera eta elkartearen antolaketa, barne-araubidea eta jarduera arautuko dituzten estatutuak onartzea.

Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkarteak erabaki-proposamen bat bidali dio Andoingo Udalari Osoko Udalbatzak honakoa onartzea eskatuz: Tokiko Energia Komunitate (TEK) baterako energia sortzeko udal titulartasuneko hainbat higiezin azaleraren emakida ematea, bertan plaka fotovoltaikoak instalatzeko.

2023ko otsailaren 24an, “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkartearen izenean diharduen Ander Aranzadi Ormaechea jaunak Ondarreta Ikastetxeko eta Allurralde Kiroldegiko estalkietan jarri nahi diren autokontsumorako instalazio fotovoltaikoen memoria teknikoak aurkeztu ditu, aurrez aurkeztutako emakida eskaera osatzeko.

Kontuan izanik, “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” irabazi-asmorik gabeko elkarte dela, eta bere kideen artean Andoingo Udala dagoela, eta ikusirik baita ere Elkartearen Estatutuen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, elkarte horren helburuak honako hauek direla: a) Jasangarritasun energetikoari laguntzea, udalerriko herritarrek eta saltokiek energia berriztagarria ekoiztea eta kontsumitzea sustatuz; b) Udalerriko bizilagunak energia berriztagarriaren erabiltzaile eta autokontsumitzaile gisa ahalduz; c) Bertako kideei ingurumen, ekonomia edo gizarte-onurak ematea Andoingo udalerriko toki-eremuan; d) Herritarren kontzientzia sustatzea jasangarritasun energetikoaren kulturen, eta administrazio publikoen inplikazioa sustatzea, bereziki udal mailakoena, hura garatzeko beharrezkoak diren politika publikoen garapenean; e) Autokontsumo partekatuko erregimenean ustiatu daitezkeen instalazio fotovoltaikoen ezarpena sustatzea; f) Instalazio fotovoltaikoak egitea energia berdea sortzeko egokienak diren eraikin publiko edo pribatuetan; g) Jarduera egokiak gauzatzea, elkarteko kideen etxebizitzetan eta lokaletan kontsumitzen den elektrizitatearen %100aren jatorria berriztagarria izatea lortzera begira; h) Energia fotovoltaikoa ez den beste iturri batzuen bidez energia berriztagarria sortzearekin, mugikortasun iraunkorarekin, energia berriztagarri termikoekin, eraginkortasun energetikoarekin eta eskariaren kudeaketarekin lotutako ekimenak pixkanaka txertatzea; i) Udalerrian energia-kalteberatasuneko egoerak saihesten laguntzea eta landarren edo despopulazio-arriskuan dauden udalerrietan ekimen horiek garatzen laguntza; j) Herritarrek toki mailako trantsizio energetiko batean parte har dezaten sustatzea, 2050ean Europar Batasunean neutraltasun klimatikoa lortzeko, Europako Itun Berdearen arabera eta k) 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak (GIH) kontzientziatzea eta herritarren artean zabaltzea, hiri eta komunitate jasangarriak lortzearekin lotuta.

Kontuan izanik, Elkartearen Estatutuetan esaten dela, helburu horiek lortzeko, legez ezarrita dauden baldintzak bete ondoren, beste batzuen artean honako jarduera hau burutuko da: akordioak lortzea hirugarrenekin, publiko zein pribatuekin, eraikin publiko edo pribatuetako lurzorua edo azalera okupatu ahal izateko, eraikin horietan instalazio fotovoltaikoak egin eta, horien bitartez, elkartekideen etxebizitzak eta lokalak energiaz hornitzeko.

Kontuan izanik, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, elkarteak proposatzen duela azpiegitura fotovoltaikoak instalatzea udal-jabetzako eraikin hauen teilatuetan: Ondarreta Ikastetxea eta Allurralde Kiroldegia (eskola eta kirol-instalazioak).

Kontuan izanik, aipatu azpiegiturak instalatu nahi dituzten eraikinak Ondasunen eta Eskubideen Udalen Inbentarioan agertzen direla udal-jabetzakotzat, eta zerbitzu publiko bati atxikitutako udal-jabari



publikoko ondasuntzat hartzen direla, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 74.1 artikuluan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontuan izanik, jabari eta zerbitzu publikoko hainbat ondasunen estalkietan azpiegitura fotovoltaikoak instalatzeak jabari publikoaren zati bat okupatzea dakarrela, beste interesdun batzuen erabilera mugatuz edo baztertuz. Beraz, ondasunen erabilera pribatiboko kasu baten aurrean gaude (baita anormala, TEEHren 75.4 artikulua zentzuan). Kasu honetan, eta APELen 86.3 artikuluan eta TEEHren 78.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, dagokion herri-jabari emakida eman behar da, eta emakidaren gehieneko iraupena, luzapenak barne, hirurogeita hamabost urtekoa izango da beti.

Kontuan izanik, APELen 93.1 artikuluan (oinarrizkoa) eta TEEHren 78.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lizitazioaren ondoren emango direla, lehia-erregimenean. Hala ere, zuzenean ematea erabaki ahal izango da lege beraren 137.4 artikuluan aurreikusitako kasuetan eta behar bezala justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak gertatzen direnean, edo legeetan ezarritako beste kasu batzuetan. Hala, azken artikulua horretan zuzeneko emakida oinarritzeko kontuan har litekeen kasua c) idatz-zatian aurreikusitakoa izango litzateke. Higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoaren eginkizun bat betetzeko edo a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitakoez bestelako pertsona batek interes orokorreko helburu bat gauzatzeko.

Kontuan izanik, ondasunaren helburuari buruzko betekizunari dagokionez -zerbitzu publiko bat edo interes orokorreko xede bat-, Udalbatzako idazkariak 2022ko maiatzaren 6an emandako txostenean, etengabeko erreferentzia duen elkarte eratzeko proposamenari buruzkoa, honakoa esaten da: *“el artículo 1.2 de la Ley 24/2013, de 26 de diciembre, del Sector Eléctrico, define como actividades destinadas al suministro de energías, las de “generación, transporte, distribución, servicios de recarga energética, comercialización e intercambios intracomunitarios e internacionales, así como la gestión económica y técnica del sistema eléctrico”, siendo el suministro declarado como un “servicio de interés económico general”. Conforme a ello, considerando que la producción de energética mediante estas placas solares es una actividad de generación eléctrica y por tanto destinada al suministro eléctrico, que constituye un servicio de interés económico general, es decir, parece que perseguiría un fin de interés general, por tanto entendemos que podría ser susceptible de otorgamiento directo con base en el mencionado artículo 137.4.c) de la LPAP, considerando además que la entidad beneficiaria de la misma como hemos visto sería una asociación sin ánimo de lucro, por medio de la cual se suministraría electricidad a las PYMES y personas que la integran.”*

Kontuan izanik, emakidaren zuzeneko esleipenerako aplikazio-prozedurari dagokionez, APELen 93. artikulutik 104. artikulura bitartean xedatutakoa aplikatu behar dela, eta horietatik 93., 94., 77. eta 98. artikuluek oinarritzeko izaera dute, eta TEELen 82. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoa ere bai.

Kontuan izanik, TEELen 82. artikulua honakoa dioela: *“Cuando alguna persona, por propia iniciativa, pretendiere una ocupación privativa y normal del dominio público, deberá presentar una memoria explicativa de la utilización y de sus fines, y justificativa de la conveniencia y de la normalidad de la ocupación privativa respecto del destino del dominio que hubiere de utilizarse. La Corporación examinará la petición y teniendo presente el interés público, la admitirá a trámite o la rechazará.”*

Kontuan izanik “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” erakundea irabazi-asmorik gabeko elkarte delako, Andoingo Udala bertako kide delarik, eta ikusirik elkarte horren helburuak eta egin ditzakeen jarduerak, erabaki proposamen honetako laugarren atalean aipatu direnak, eskatutako emakida onartzearen egokitasuna egiaztatu dela uste da.

Ikusirik “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkarteak Ondarreta Ikastetxe eta Alluralde Kiroldegiko estalkietan autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzeko memoria teknikoak, Edinorrek 2023ko otsailaren 24an idatziak. Memoria horien xedea da elkarte horrek Ondarreta Ikastetxean eta Alluralde Kiroldegian egin nahi duen instalazio fotovoltaikoen ezaugarriak Udalarri aurkeztea eta, era berean, eraikin horien estalkiak erabiltzeko baimena eskatzea.

Ikusirik Udaleko behin-behineko idazkariak 2023ko apirilaren 12an egindako txosten juridikoa.

Ikusirik, era berean, ingurumen teknikariak eta udal arkitektoak 2023ko apirilaren 20an egindako txosten teknikoak.



Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2023ko apirilaren 25eko irizpena. Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“La TEK, que es una entidad sin ánimo de lucro, de la que el Ayuntamiento forma parte, cuyo fin es el de promover la sostenibilidad energética mediante la producción y el consumo de energía renovable por parte de vecinas y vecinos y comercios del municipio. Para ello, requiere de la concesión de las superficies, de las cubiertas de varios inmuebles de propiedad municipal, en los que se plantea, concretamente el polideportivo de Allurralde y la cubierta del edificio de Primaria del Colegio Ondarreta para la instalación de infraestructuras fotovoltaicas. “

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Tokiko Energia Komunitate (TEK) baterako energia sortzeko Ondarreta Ikastetxeko eta Allurralde Kiroldegiko estalkietan plaka fotovoltaikoak instalatzeko “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkarteak eskatutako emakidaren egokitasuna aldarrikatzea goian aipaturiko arrazoiagatik eta, horren ondorioz, aurkeztutako eskaera tramitera onartzea.

2.- “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain” elkarteari jakinaraztea, dagokion prozedura administratiboa izapidetzen jarraitzeko, emakidaren proiektua aurkeztu beharko dela. Proiektu horrek, nolana ere, memoria eta Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 84. artikuluko a)-tik f)-ra bitarteko ataletan eskatutako gainerako dokumentuak jaso beharko ditu.

3.- Erabaki hau jakinaraztea “Andoingo Tokiko Energia Komunitatea-TEK Andoain”elkarteari.

4.- Erabaki honen berri ematea Ondarreta Ikastetxeko zuzendariari eta Allurralde Kiroldegiko arduradunari.

## **9. 2030 Agendari buruzko Adierazpen instituzionala.**

Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bozerramaileen Batzordean eskatu genuen gai hau bertan behera uztea, gaur ez bozkatzea, eta orain, eskakizun berdina eginten dugu gure aldetik. “

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Como dice el Sr. Alvarez, planteamos en la Junta de Portavoces que no nos parecía que era el momento y también pedimos que se retire.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza honakoa esateko:

“Por nuestra parte no hay ningún inconveniente en que el punto se quede sobre la mesa y no se somete a votación.

PSE-EE-ko ordezkariak ere ados azaltzen dira.

Beraz, proposamena mahai gainean uzten da.

## **10. Udalaren lanpostuen zerrenda aldatzea.**

Lanpostuen zerrenda da Udaleko pertsonal politikarako oinarritzko dokumentua, hori baita Udalak bere barruko egiturak arrazoibideratzeko eta antolatzeko erabiltzen duen tresna, langileria premiak erabakiz, lanpostu bakoitza betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak definituz eta lanpostu horiek sailkatuz.

Horrenbestez, lanpostuen zerrendak dinamikoa izan behar duenez eta udal antolaketan planteatzen diren egoera desberdinei erantzun behar dienez, proposamen honen bidez ondorengo aldatetarako egingo liriteke:

-Haur Eskolako sukaldari laguntzaile lanpostu bat sortzea.

Ikusirik, Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2023ko apirilaren 17an egindako txostena.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2023ko apirilaren 25eko bileran emandako aldeko irizpena.



Verdasco jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentza zinegotzi delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“La relación de puestos de trabajo, como en alguna otra ocasión ya se ha comentado, es el instrumento mediante el cual el Ayuntamiento racionaliza sus recursos y ordena sus estructuras internas.

“En este caso, la propuesta que traemos a votación al pleno, es la creación de la plaza de auxiliar de cocina para la escuela infantil y las modificaciones que ello suponga para la relación de puestos de trabajo.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Lanpostuen Zerrendaren eta Plantila Organikoaren aldaketa, ondoren zehazten den moduan:

- Haur Eskolako sukaldari laguntzaile lanpostu bat sortzea.

2.- Halaber, aipatu lanpostua Udal Organigraman txertatzea onartzea.

3.- Plantila Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa argitara ematea GAOn, bat etorritz Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 16. artikuluan xedatuarekin.

#### **11. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 554/2023 zenbakidunetik 806/2023 zenbakidunera.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatezaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzara aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 554/2023 zenbakidunetik 806/2023 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

#### **12. Galderak, eskaerak eta proposamenak.**

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi Romero andreak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Barkatu. Urduri nago, gustatuko litzaidake interbentzio hau euskaraz egitea, baina niretzat gaia berezia da eta kasu honetan erderaz egingo det.

“No sé si este será el último pleno de la legislatura, pero me gustaría aprovechar este turno de palabra para tener unas palabras de agradecimiento con el pueblo de Andoain y con su Ayuntamiento a todas las personas que me han acompañado en todos estos años, en esta etapa política dedicada a la ciudadanía de Andoain y a su comarca. En esta última legislatura como concejala de Andoain, han sido tres legislaturas, dieciséis años como concejala y a los que sumó los primeros cuatro años como trabajadora en alcaldía ya por el año dos mil tres.

“Me gustaría agradecer a todas y todos los trabajadores de este Ayuntamiento todo su apoyo en todos estos años. Son muchos y muchas las y los trabajadores públicos que me han ayudado a realizar mi trabajo como concejala. Y en especial me van a permitir que mencione a Leyre Rodríguez, una de mis indispensables en esta casa, mención especialmente a Sandra, Irene e Ixiar, con las que me ha tocado trabajar más estrechamente en esta última legislatura.

“En una de las pasiones políticas que unen por encima de todo en muchas cosas, a representantes políticos y a las y los trabajadores de este Ayuntamiento, que es la lucha por la igualdad entre hombres y mujeres. Me gustaría agradecer también a todos los movimientos feministas de Andoain, sin las cuales los pasos que se han dado no hubieran sido tan grandes en tan poco tiempo. Veinte años dan para mucho.

“La etapa que empezamos hace años ha llenado la política de trabajo, libro y convivencia entre diferentes.

“Por eso agradezco también a todos los grupos políticos y a las concejalas y concejales que han formado parte de este Ayuntamiento el trabajo conjunto por la ciudadanía Andoain y por mejorar su bienestar y su calidad de vida.



“Siempre trato de contribuir a construir una política mejor desde la consideración al diferente y teniendo en cuenta a los distintos posicionamientos políticos, con diálogo y respeto y con confianza, como creo que se realizan las mejores políticas públicas porque el consenso refuerza los avances de los pueblos. Acabó con mis compañeros socialistas. Mi agradecimiento muy especialmente a todos mis compañeras y compañeros de Andoain en distintas legislaturas. Su confianza en mí y el cariño y apoyo durante tantos años, Óscar, José, Luis, Maider, Choni y Leire, lo hice lo mejor que pude y en lo bueno que realice habéis sido parte del éxito.

“No ha sido esta una legislatura fácil, pero hemos hecho frente con esfuerzo y dedicación para lograr lo mejor para el pueblo de Andoain. Todo el mundo sabe que no soy oriunda de Andoain. Hoy me siento un andoaindarra más y me llevo a lo mejor de este pueblo la calidad humana de su gente. Bueno, esto no es un adiós. Sabéis que a todos y todos dónde encontrarme. Eta mila esker guztioi.

Jarrian, Zulueta jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ez dakit, hau zen momentua. Guk ez daukagu ezer prestatuta, baina Udal Gobernuak kideak despeditzen badira, esan nahi du ez garela berriro ikusiko. Igual ez. Guk baino gehiago daki zutelako agenda. Zer esan nahi dut. Esti, Maite, Julian ta lauok ere bagoaz, orduan, besterik gabe, eskerrak eman, batez ere herritarrei, emandako babesagatik eta laguntzeagatik udal langile guztiei eta baita ere zuei guztioi, ezberdintasun politikotik eta lehen esan dugun tentsio guztitikan ere atera ditugulako ondorio on batzuk eta momentu on batzuk.

“Baita ere eta pertsonalki ere gogoan ditut aurreko agintaldian Gobernuan ginenean ere Olga, Jorge, Álvaro, Daniel eta baita Iñaki Egibarrekin ere izandako momentuak, ba uste dut hor ere ezberdintasun handietatik atera genituelako ondorio eta akordio onak ere. Herria hobeto ezagutzen dugu, sartu ginenean baino eta ikuspegi horrekin uste dut gure bizitza ere aberasgarriagoa egiten dela eta bueno eskerrik asko denei eta bide on.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik ere pentsatzen nuen beste bilkura bat egongo zela, ez daukat ezer prestatu udalbatza honetako baino, danak hasi zaretenez eta ni ere banoa, hau da nire azken legegaldia, hamasei urte egin ditut udaletxe honetan. Egia esan, politikan sartu nintzenetik gaur egunera politikagintza ez da politika egitea eta udaleko jarduna asko aldatu da.

“Modu positiboan ikusten det denbora guzti hau, hamasei urte hauek bere gorabeherak izan dira eta momentu hobeagoak eta momentu okerragoak izan ditugu. Baina hala ere, esan behar dut, asko ikasten dela, talde batez, asko ikasten da herria nola eraikitzen den, ikasten da eta hori oso aberasgarria da. Nola ez, ba eskerrak eman nire alderdiko kide guztiei, bai orain ditudanak hemen ondoan eta baita hamasei urte hauetan nirekin egon direnei, eta nola ez, ba hamasei urte hauetan udalbatza osatu dugun zinegotzi guztiei eskerrak ematea. Barkamena eskatzea zerbait gaizki egin bada edo hitz txarren bat egon bada, barkamena eskatu alde aurretik.

“Eskerrak eman ere langile guztiei, egia esan asko lagundu digute eta, Romero andreak esan duen bezela, legegaldi hau ez da batere erraza izan eta zuen laguntza behar beharrezkoa izanda.

“Edozer gauzetarako badakizue non gauden, udala uzten dut, baina edozer gauzetarako eta lagundu badezaket ba hementxe nago.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Me vais a permitir que como yo prefiero, si me tengo que despedir, despedirme en junio, porque bueno espero tener un poco de suerte y seguir. Entonces no me voy a despedir de momento. Entonces ya agradeceré todo y ya diré todo lo que ha supuesto en mi vida municipal. Lo dejo para entonces. Mila esker guztiei.”

Jarraian, Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Egia esanda, guk ere ez genekien. Alde horretatik, uste dut pertsonala izan dela eta egia da ekainean behintzat beste udal batzar bat egon behar duela. Hori argi daukagu, egun horretarako, Santana andrea, lasai. Noski, aukera izango duzuela.

“También habrá tiempo, pero, por supuesto que a todas las personas que habéis tomado la palabra





ahora agradeceremos toda la labor que habéis realizado en las diferentes etapas y en los diferentes equipos de gobierno.

“Ez dakit. Beste galdera, erreguren bat badago?. Bai-bai-bai-bai, orain, orain. Ahora pasamos la palabra al público.”

Jarraian, CII Plataformako ordezkariak hartu du hitza.

Jarraian, Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“En lo que a mí compete Sr. Pérez de Eulate, dos cosas: primero, mi apellido es Laínez, que no sé de dónde viene la confusión, pero no hay ninguna eñe en el camino, más que nada para que lo sepan.

“Respecto a las dos menciones que hace, con respecto a la ikastola, nosotros ya lo comentamos en su momento, lo voy a hacer público, a pesar de que, no sé si es bueno hacer públicas conversaciones privadas, pero en su momento ya trasladamos que el retraso que se produjo a la hora de pasar por la Junta de Gobierno la aprobación del punto de cesión a la Diputación del terreno que solicitaba viene motivado porque la dirección de la ikastola nos pidió que se retrasara porque estaban pidiendo una reunión con la diputada y como no les daba traslado, ni les respondía. Nos pidieron que mediaráramos, y fue la motivación por la cual por nuestra parte les trasladamos que no había ningún problema y todo lo contrario que nosotros haríamos la petición a la Diputación para que se pusieran en contacto con ellos y trasladarían y mantuvieron esa reunión. Y así nos hizo saber, nos consta que se reunieron con ellos y una vez que ya se produjo la reunión, lo que nosotros sí les trasladamos es que técnicamente no había ningún problema para poner las pantallas, y nosotros entendíamos que era una de las peticiones que había en este municipio, que más de una petición histórica, que se llevaba muchísimos años pidiendo que se colocarían en la ikastola pantallas acústicas. A lo cual, además, nos constaba que también era una petición por parte de las diferentes asociaciones, y que era importante que una vez ya todos los pasos se hiciera aquí. Ahora mismo no tengo ese documento. Pero, si mal no recuerdo, a lo mejor técnicamente me pueden ayudar.

“En el segundo punto se hacía mención a que, en el caso de que luego el trazado no fuera este o tal, habría posibilidad de retornar, y de hecho tendrían que retornar a como estaba. Pero sí nos parecía importante, y así lo trasladamos, que sea un proyecto o sea otro. Todos creo que somos conscientes y eso sí que es ser justos a la verdad. Y eso sí que es importante decirlo una y otra vez, que sea cual sea el trazado no va a ser ni en un año ni en dos. Eso creo que todos lo tenemos claro.”

Jarraian, behin-behineko idazkariak jakinarazten dio Perez de Eulate jaunari tarteratutako helegiteari buruzko txostena egiten ari dela eta bukatzerakoan Alkateari pasatuko diola dagokion erabakia hartu dezan.

“Beste interbentzionik ez dagoenez, bukatutzat ematen dut plenoa eta eskerrik asko etortzeagatik.”.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:55 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

